

Pasai Donibanen Hugoenea etxea dago, eremu urriko hizkuntzetan idazten dutenentzat egokitua. Bertan bizi da orain Silvia Aymerich idazle katalana, 'Aïllats' eleberria bukatzen.

Itsasoko sormen etxea

Ane Urrutikoetxea Pasaia

Pasai Donibanekeko plazan (Gipuzkoa), berdez margotutako balkoi txiki bat dago, bi leihorekin. Bertatik portua eta Pasai San Pedro ikusi daitezke, herriko jendea jaiak ospatzen eta barku eta txalupak alde batera eta bestera kulunkatuz daudela. Victor Hugo idazleak itsas bazterreko bere etxetik ikusiko zuenaren antzekoa da ikuspegia. Leihoen bestaldean, gela bakarreko etxebizitza bat dago, dena pertsona bakar bat bizi dadin antolatua. Ohea, komuna, sukaldea, sofa... eta idazmahaiak. Bakardadearen eta independentziaren bila datozenak hartzen dute ostatu bertan; idazleek, hain zuzen ere. Baina ez edozein idazle; soilik eremu urriko hizkuntzetan idazteko asmoa dutenek. Hugoenea etxea da, eta bertan bizi da orain Silvia Aymerich idazle katalana.

Leihoaren parean eserita, Aymerich portura begira dago. «Virginia Woolfek zioen bezala, idazle batentzat garrantzitsua gela propio bat edukitzea da. Leku honek behar duzun askatasuna ematen dizu sormena pizteko». Gela bakarreko etxeak ez dauka inolako apaindurarik, eta txikia izan arren, hutsik dagoen sentipena sortzen du. «Alde bate-

tik, bizitzeko behar duzun guztia dago, eta, bestetik, arreta galaraz lezaketen gauzarik ez da ageri. Perfektua da». Aymerichen ustez, «ona» da idazleek berentzako leku bat eduki ahal izatea, ordutegi propioa eta erabateko independentzia eskaintzen dituelako: «Zeure erritmoa izan deza-kezu hemen».

Hugoenea proiektua Euskal Idazleen Elkarte eta Pasaiaiko Udalak sortu zuten, euskarak bezala eremu urria duten hizkuntzetan idazten dutenei leku bat eskaintzeko asmoz. Aymerichentzat, hori «oparia» da. Liburu guztiak katalanez idatzi ditu, eta horietako batzuk gaztelaniara itzulita daude. «Ez dut inoiz planteatu zein hizkuntzatan idatziko dudana, ingelesez idazten duenak egiten ez duen bezala; naturala da. Bestalde, ez ditut nire liburuak nik neuk itzuli nahi izan, nahasterik ez sortzeko». Eremu urriko hizkuntzei laguntza eskaintzea «ezinbestekotzat» dauka idazleak: «Elkarri laguntzen ez badiogu, ez gaitu beste inork lagunduko. Hizkuntza bat erabiltzeari ez zaio besterik gabe uzten, jarritako oztopoek sufrendua ekartzen dutelako bai- zik».

Aymerich ez da Hugoenera etorri den lehen idazlea, ezta azkena izango ere: Frederic Mayol idazle katalanak estreinatu zuen etxea,



Silvia Aymerich idazlea Hugoenean da hamabost egunerako. JUAN CARLOS RUIZ / ARGAZKI PRESS

ekainean. Joan den udazkenean Galeuscakoei esker ezagutu zuen oraingo egoiliarrak Hugoenea proiektua. «Segituan bete nuen eskaera, ideia bikaina zela iruditu zitzaidalako». Hamabost eguneko egonaldia egiten dute denek, eta gero hurrengo idazleari lekua uzten. «Egokia iruditzen

Idazketan murgiltzeko leku «perfektua» da Hugoenea, Silvia Aymerichen hitzetan

Idazle katalana 'Aïllats' eleberriari azken ukituak ematen ari zaio Pasaian

zait egun kopuru hau, txandakatzeko bidea ematen duelako. Izugarri aprobetxa daiteke hamabostaldia, ez baitzaude etxean bezalako giro estutuan, denbora

guztia zeuretzat duzula baizik». Aurretik ez du inoiz ezagutu Hugoenea bezalako idazle etxerik. «Katalunian ez dago halako proiekturik, eta pena handia da; adibidez, Costa Brava leku aproposa litzatekeelako horrelako etxe bat ipintzeko. Itzultzen naitzen, komentatzeko asmoa daukat».

Zientziei loturiko literatura

Leiho irekietatik itsasontzi baten tutuaren soina sartu da, eta elkarriketa eten du. Pasaiaiko inguruari buruz galdetuta, Aymerichek irribarre egiten du. «Egonda nengoen aurretik hemen, eta idazle batek aurki dezakeen txoko xarmangarriena bat da. Dena oso magikoa da». Idazle etxeak hartuko duen egunetan, Aymerich *Aïllats* liburua (Isolatuak) bukatzen eta proiektu berrietarako ideiak hartzen ari den liburua bilduma baten hiruga-

rren alea da; aurretik, *Ulls de pantera* eta *Gelati* eleberriak idatzi ditu. Liburu horiek gazteentzat dira, eta hirurak zientziarekin lotuta daude. Azken honek matematikak eta fisika nahasten ditu, duela 15 urteko gertaera baten *flashback*-arekin hasita. Idazleak letren eta zientzien arteko amildegia murriztea nahi du. «Jakinduria bakarra da, eta, niretzat, oso garrantzitsua da bi aldeean artean loturak sortzea». Lan horiez gain, Aymerich blogekin dabil lanean, bere liburuak sarean argitaratuz eta irakurlea istorioan parte-hartzaile eginez. «Internet hizkuntzak zabaltzeko tresna bikaina da; bi klik egin eta adierazi nahi duzuna guztien eskuetara iristen da».

Hugoenean egin dituen egunetan ez dio lan egiteari utzi. Leihoetik bestaldeko itsas paisaiak eta arnasten den bakardadeak idazleen sena esnatzen du, sormena piztuz.

Hilberria


Frank McCourt Errautsezko oroimenen idazlea

Haurtzaroak une goxoz beteta egon ohi dira gehiengotan. Jolas, barre eta zoriontasunezko urteak izaten dira, heldutasunera iristean nostalgiaz gogoratzen direnak. Baina ez ume guztientzat. Frank McCourt idazleak bestelako haurtzaro oroitzapenak zituen, *Angela's Ashes* eleberrian (Angelaren errautsak, 1996) bildu zituenak. Oroitzapen ilunak ziren, sufrimenduz eta miseri-az betetako haurtzaro gogor batekoak. Atzo zendu zen Pulitzer saria eta National Book Critics

Circle saria irabazi zituen eleberri horren egilea, 78 urterekin, meningitisaren eta azaleko minbiziaren ondorioz.

McCourt 1930ean jaio zen, New Yorken, eta oso txikitik Irlandako Limerick herrira joan zen. Han urte latzak igaro zituen; aita alkoholzaleak ez zuen nahiko diru ekartzen etxera, eta ama ez zen gai egoerari bakarrik aurre egiteko: zazpi seme-alaba zaindu behar zituen. Hala, txirotasun gogorrean bizi izan ziren McCourtarrak. Gosearen ondorioz, hiru anai-arreba hil

eta aitak etxea utzi ondoren, haurtzarorik gabeko haurra goiz hasi zen lanean gelditzen zitzaien familia aurrera ateratzeko. Lan xume eta desatsegin ugaritan ibili ondoren, 19 urterekin bere ametsa bete zuen: jaio-terrira, hau da, Amerikako Estatu Batuetara itzultzea. Bertan bere bizitza hutsetik eraikitzen hasi zen. Soldaduska egin ondoren, unibertsitatera joan eta hizkuntza eta literatura irakasle bihurtu zen. 66 urterekin erretiratu eta idazteari ekin zion, eta orduan sortu zuen *Angela's Ashes*, bere bizitzako urte gogorrenak gogora ekartzen dituenak. Amaren omenez ipini zion titulu hori, gertatutako ezbehar guztietan aurrera jarraitzeko gai izateagatik.



Liburua, jasotako sariez gain, 30 bat hizkuntzatarara itzuli dute, eta Alan Parker zuzendariak zinemara eraman zuen, Emily Watson eta Robert Carlyle aktoreekin. Eleberri horrez gain, idazleak beste zenbait liburu idatzi zituen: *'Tis* (1999), aurre-

koaren jarraipena; *Teacher Man* (2005), bere irakasle urteetan oinarritua, eta, azkena, *Angela and the Baby Jesus* (2007) umeentzako gabon ipuina. Idazlea emaztearekin bizi zen, eta alaba eta hiru biloba zituen. ■ ANE URRUTIKOETXEA